

ALKATEARI

Talde Popularrareko bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) Segurtasunari buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiarren kezka nagusietako bat kaleetako segurtasunik eza da. Barne Ministerioak urtero argitaratzen dituen estatistikek erakusten dute delinkuentzia gehien areagotu den Espainiako hirietako bat dela Donostia, Marlaska ministroa buru dela, hain zuzen ere Sánchez presidenteak izendatutakoa. Urtetik urtera, herritarren segurtasunik ezaren markak hausten ditugu.

Delinkuentziaren etengabeko gorakadaren atzean dauden arrazoiei buruzko analisi lasai eta zorrotza egiteko aukera asko galdu ditugula uste dugu. Talde politiko bakar batek ere ez du analisi hori egin nahi izan, talde politiko bakar batek ere ez du azken urteotan Udalbatzara ekarri ditugun proposamen ugarien aldeko botoa eman.

Baina ez da beranduegi, oraindik garaiz gaude.

Hori dela eta, hau da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio hiriko delinkuentziaren jarraipena egiteko batzorde bat sor dezala. Batzorde hori talde politiko guztien, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren ordezkariak osatuko dute. Hilean behin bilduko da, eta bertan aditu independenteek ere parte hartzeko aukera izango dute, gonbidatu puntual gisa.
2. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio Donostiako delinkuentziak 2019tik gaur arte izan duen bilakaerari buruzko datuak argitara ditzala.
3. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio herritarren segurtasunerako plan bat egin eta argitara dezala, tarteko mugarriak eta azken helburuak zehaztuta dituen, herritarrek horren berri izan eta Gobernu Taldeak segurtasunaren arloan egiten duen lanaren etengabeko jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko.
4. Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio legegintzaldi honetan EAJk agindu zituen Egiako eta Ekialdeko Barrutiko polizia-etxeak eraikitzen hasteko. Konpromiso hori 2023an PSOErekin sinatutako Gobernu Programaren (2023-2027) parte ere bada.

Donostia, 2025eko apirilaren 24a

Borja Corominas Fisas

Alderdi Popularreko Udal Taldeko bozeramailea